




Erantzuna ezezkoa da, zeren norantza guztietan indar berdina egingo litzateke, guztira indar nulua emanez. Lurraren zentroan, beraz, indar grabitatorioa nulua da.

Baina Lurraren baitan jarraituz, gorputza zentrotik ateratzen bada, indar grabitatorioak ez dira kantzelatzen eta eremu grabitatorioa badago.

Lurraren zentrotik bere azalara hurbiltzerakoan, eremu grabitatorioa handitzen doa eta Lurraren azalean maximoa da.

Hona hemen grafikoki adierazita eremu grabitatorioaren aldaketa Lurreko zentroko distantziarekin.



Irudian bertan "a" (Lurraren baitan), "b" (Lurraren azaletik gertu) eta "c" (Lur planetatik urrun) gorputzak irudikatu dira eta beraiek izango duten eremu grabitatorioaren balioak.